


Lana burutu ondoren hau izan zen emaitza:



- Lehenengo biñetan itsu bat tren-geltoki baten ondoan eskusoinua jotzen eta eskean ari da.
- Bigarrenean emakume aberats bat trenetik atera da.
- Hurrengoan emakume hori itsuarengana doa.
- Azkenean, diru asko jaso duela konturatuz, saltoka eta jauzika hasten da pozez gainezka, eskusoinua botata.

Istorio honek, sinpleegia izan arren, ildo honetatik abiatuz gero, era askotariko posibilitateak daudela adierazten digu. *Cuisenaire errepletak* zenbait koloretako egur zati baino gehiago dira. Bestela, proba egin.

Joanba Bergara

«TALDE BEREZI» IKASTAROAK DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO IRAKASLE ESKOLAN

• Euskalduntze taldea

Elizbarrutiko O.H.O.eko Irakasle Eskolak azken urteotan antolatu dituen «talde berezi» ikastaroak aurreneko aldiz 1979-1980 kurtsuan hasi ziren, ikastaro hauen jaiotze arrazoiak eskola honetako ikaslegoaren euskara maila hobetzean oinarrituz.

Hasiara batean ikastaro hauek osatzeko, zenbait gai, eta euskara soilik, ematen zen. Urteetik urtera irakasle kopurua jaitziz joan ahala, euskara beraren maila ere beherantz joan da. Hori dela eta, azken lau urteetan zehar talde berezia sendotzea eta lau hilabetez eta egunean bost orduko saioak ematea erabaki zen.

Jarrera honekin talde berezian sartzan den ikaslegoaren plangintza, aurreneko euskara ikastaro hau egin ondoren, magisteritza eskolak (euskaraz ematen diren gaiak) normaltasunez jarraitu ahal izatean oinarritzen da.

Hau burutu ahal izateko ikasle hauentzako ikastaroa hilabete lehenago hasten da eta hilabete beranduago bukatzen.

Lehenengo puntu aipagarriena ikasleen jatorria eta beraien ikastetxeetako hizkuntza ereduak aipatzea litzateke. Eskola hauetako gehienek A ereduari jarraitzen diote, hau da, euskara gazteleraz irakasten da bigarren hizkuntza bezala. Honen zeregina euskara gramatikalki besterik ikasten ez dutenean datza. Aipa daiteke, era berean, ikasle batzuk herri euskaldunetatik etortzen direnez, ulermen maila bederen, landua dutela.

Konstatazio gisa aditzera eman genezake A ereduetakoko eskoletatik Magisteritza Eskola honetara datozen ikasleen euskararen maila jaitzi egin dela urtetik urtera.

Gure eginbeharra horren ikerketan ez egon arren, ikasle hauen euskararekiko jarrera eta motibazioa ere nabarmen aldatu eta ahuldu egin da.

Urteen poderioz, beraz, talde bereziari dagokion banaketan eskola honek egin behar izan dituen urrats mailak jaitsei egin dira. Hori argi ikusi da mailaketa egiterakoan egin ditugun frogetan. Adibide gisa esango dugu azken urte hauetan gutxienez bi urrats gutxiagotik egin izan dela taldeen sailkapena.

Ezinbestean, taldeak osabete egin behar bait ziren, urrats bakoitzean homogeneitatearik eza nabari azaltzen zitzaigun eskuarki, kurtsoa aurrera joan ahala, honek zekartzan oztopo eta zailtasunak areagotu egiten zirelarik.

Hasteko, ikasle kopurua murrirtza denez, bi talde osatzera behartuak geunden eta, beraz, talde bakoitzean konponbide egokia topatzean zegoen gakoa. Baita eskolak emateko orduan ere, arazo honek zenbait eragozpen gogor sortarazten zituen gure plangintzan, arazo guzti hauekin talde bakoitzean erabateko urratsa zedarrizteko premian geundelarik. Jakina, multzo bi hauetan urrats arras desberdinetako ikasleago aurkituko dugu eta, era berean, hauetako hala urrats desberdinen nola trebetasunei lehentasuna ematean gure kezkek izan genituen.

Ez legoke gaizki plangintza akademikoetatik kanpo klasean bertan ezhomogenitate honen nolabaiteko tentsioa sortarazten zuela aipatzea; azken batean guzti hau progresio geometriko baten kontua besterik ez da; esan nahi baita, oinarri murrirtzena duenak garapen motelagoa lortzen duela oinarri garaiaogo duenarekiko.

Guzti hau kontuan harturik eta eskolako plangintzari jarraituz, lau hilabetetan zehar antolatzen da ikastaroa, 400 ordu betetzen direlarik. Egunero bost ordu ematen dira, ordu t'erdiko hiru saiotan banatuz. Lehen aipatu den bezala, bi talde osatzen dira, eta aurten hauen mailaketa hirugarren eta seigarren urratsetan jarri da.

Talde bakoitzari dagokionez, goi maila (6. urratsa) honako zatiketaz eratu zen: lehenengo saioa eduki gramatikalak, trebetasun guztien oinarri gisa; bigarren saioa, irakurmen eta idazmenaz osatuz; eta hirugarrena, aldiz, mintzamen eta ulermenarekin.

Behe mailari (3. urratsa), bestalde, honako banaketa hau egin zitzaion: lehen saioan edukiak berriro ere, bigarrenan mintzamina eta ulermena, hirugarrenean, berriz, irakurmena eta idazmena. Behe mailan hirugarren urratsa hartzea erabaki zenez, bigarren urratsari dagokion hainbat ariketa egin ziren errepaso gisa, batez ere mintzamenari garrantzia emanik.

Goi mailan, aldiz, azalpen eta egitura gramatikal bätzu minimotzat hartuak izan ziren, nahiz eta ikasle guztiak ezagutu ez, erabakitako urratsaren arabera. Hau burutu ondoren, egitura minimo horiek finkatu ziren, talde guztia parekatu arte.

Aipagarria ikusten dugu balorazio gisa edukiak lehenengo saioan ematearen zergatia ondorengo saioetan aurrez jasoriko egiturak lantzean zegoela.

Aurrekoa arlo akademiko soilari dagokiona litzateke. Honetaz gain, eta ez azkenean aipatua izanagatik garrantzi gutxiagokoa, esperientzia ezberdin batzu aurrera eraman ziren.

Horietako bizpahiru aditzera emango dira hemen.

- *Astebeteko egonaldia baserrian*

Esperientzia honetan gure asmoa eskola eta geletako dinamikaren errutina puskatzea eta ikasleen arteko giro egokia sortzea izan zen, era berean ikasle-irakasle harremanak sendotuz.

Bestalde, euskara bizirik dirauen lekuekin kontaktu izatea inportantzia haundikotzat jo genuen, euskalkiaren balioa finkatu nahian eta irakaslearen euskara-esparrutik aldentzearen.

Azkenik, euskara bera edozein ataletan, eta egun osoan, erabili ahal izatea zen edozein-tara ere gure helburu, era honetara ikasleagoaren ohitura sortaraziz.

Jaso genituen emaitzak, batzaz beste, positibotzat jo genitzake, elkarren artean normal edo euskaraz hitzegiteko ohitura sortu eta beren aldetik arazo honetaz jabetu bait ziren, nahiz eta handik etorri eta hilabete batera berriro ere gaztelerara itzuli, ohizkoa denez.

- *Kaleko aktibitateak*

Ekintza hauek hirugarren saioarekin lotzen genituen, hau da, mintza praktikari dagokionez, hemen taberna-giroak, merkatuari bixitaldiak, eskursioak eta hainbat joko sartzen zirelarik.

- *Hitzaldiak*

Geroago magisteritza ikasketetan zehar eskolak eta apunteak euskaraz jaso beharko dituztenez, ulermena eta entzundakoa apunteetan sintetizatze gaitasuna landu nahirik, mota desberdinetako hitzaldiak antolatu ziren, gai hauek eta ikasketak uztartzen saiatuz. Honako hauek izan ziren: testuen komentario literarioa, haur-literatura, geografia, psikologia...

• **Alfabetatze taldea**

Orain arte aditzera emandako bi talde hauetatik kanpo, talde berezian barne, beste ikasle multzo bat ere bazen. Nolabait ikasle multzo hau alfabetatze ikastaro baten barruan sartzea izan zen asmoa.

Behin alfabetatze taldea osatu genuenez gero, aurrena zuten maila ikusi behar izan zen. Guztiek zeukaten euskara Institutuan ikasia, baina ez zekiten ez idazten ezta irakurgai txiki baten laburpenik egiten ere.

Mintzamenari dagokionez, arazorik ez zuten, baina beste arloetan bazuten zer ikasi.

Bestalde, denek zekiten hizkuntz forma nozioren batzu, hots, *Nor-Nori* edo *Genitibo* eta horrelako hitzen aurrean ez zeuden galduak.

Ikasle guzti hauen artean bazeuden bi euskaldunberri oraindik ere euskaltegietan euskalduntze prozesuan ikasten ari zirenak. Hauek talde honetan sartzea erabaki zen, nahiz eta mintzamenaren aldetik arazoak izan.

Taldearen maila ez zen guztiz homogenea, ohizkoa denez, baina guztiek zeuden antzera; beraz, talde berarekin, 15 horiekin, *Alfabetatze zeroa* emateari ekin genion.

Talde hau aurrez aipaturiko beste biak baino beranduago hasi zen, urrian hain zuzen. Guzti gora behera 180 ordu geneuzkan hauek prestatzeko edo, behintzat, alfabetatze lehen urratsa eman ahal izateko.

Ikasleek ez zeukaten ortografia ezta idaztarauen noziorik ere, ez zekiten idazten, ez zuten euskaraz irakurtzeko ohiturarik. Joskera aldetik oso egitura normalak erabiltzen zituzten. Lexiko-aldetik ere ez zuten aberastasun handirik. Guzti hau ikusiz, ez zeuden oraindik prest ikasketak euskaraz aurrera eraman ahal izateko. Alfabetatzeko premia zuten eta horrela ekin genion lanari.

Helburuak, beste ataletako lanketa baztertu gabe, irakurtzeko ohitura eta idazketarena izan ziren batez ere.

Helburu hauek betetzeko ere arazoak izan dira. Alde batetik irakurtzeko ohiturarik eza eta, bestalde, nahiz egitura nahiz aditza lantzean uste genuen baino denbora gehiago pasa behar izan bait genuen. Honen ondorioz, entzumena lantzeko aukera gutxitu beharrean aurkitu ginen; idazmena eta irakurmena maiztasun normalean landu ziren, baina ezin izan zen alde zurretik espero genuen gustoz landu.

Dena den, helburuak orokorki bete direla esan behar da. Ikastaroaren amaieran zuten maila haseran zutena baino dexente hobea gertatu zen. Ikasleak honelako ikastaroa egin ondoren, eskolak euskaraz egoki jarraitzeko prestatuagoak gelditu direlakoan gaude.

*Esteban Antxustegi / Arantxa Elgarreta
Arantxa Iturrioz / Iñasio Mujika*